

Liburuak

KRITIKA

Simone de Beauvoir, emakume libre bat
XX. mendean. Arantxa Agirreurreta.
Elkar. 132 orrialde. 11,15 euro.

Helduen literatura
Amaia Alvarez Uria



Sentitu, pentsatu eta idatzi

AURTEN 100 urte bete dira jaio zenetik eta 2009an berak idatzitako *Le deuxième sexe* lanak 60 urte beteko ditu. Hori dela-eta aurtan ekitaldi batzuen bidez haren ekarpena zabaltzen ibili dira han eta hemen. “Bigarren sexua” kontzeptuaren sortzailea da gehienentzat, bazterrak nahastu zituen liburu horrek eragin handia izan du argitaratu zenetik gaur egunera arte. Teoria feministaren oinarri eta abiapuntu izan da, besteak beste, mugimendu identitario honen lehen eta bigarren olatuaren artean agertu zelako.

Bere buruaren gainean hitz egin nahian jaio zen liburu hura, galdera hau eginez: “Zer da emakume izatea?”. Ikertzen hastean espero gabeko gauzak agertu zitzaizkion begien aurrean. Bi urte pasatu zituen lan zientifiko mardula egiten eta honako tesiak dakartzkigu: mundu humano edo maskulino (gauza bera baitira biak) baztertu dituzte emakumeak, gizonen arauak ezarri zaizkie menpeko bihurtuz eta *berdinarekin* (subjektuarekin, gizonarekin) elkarrekikotasunik gabeko *bestearen* (objektuaren, emakumearen) kategoria eman diete, bigarren sexuarena, alegia.

Jean Paul Sartre eta filosofia esistentzialista dira Beauvoirri buruz pentsatzean datorkigun bigarren datu ezaguna. Sartre bere kidearekin ibili zen munduan zehar hitzaldiak ematen. Ezkerreko intelektual hauen hitzek pisu handia izan zuten mendealde eta ekialdean. Idazle konprometituak izan ziren biak. Sartrearekin izan zuen harremana ere berritzailea izan zen: askatasun eta gardentasunean oinarritutako maitasun ituna egin zuten. Elkarrekin zuten harremana, baina bakoitzak bere bizitza indibiduala bizitzeko aukera ere bazuen.


Dena dela, “Bigarren sexua”-z eta Sartrez harago badago Beauvoirri buruzko jakinagari ugari. Bizitza idatzi eta idatzeko bizi. Hori izan zen bere aukera. Fikzio lanak, saiakerak eta oroitzapen liburuak utzi dizkigu. Berak sentitu eta pentsatzen zuena besteekin konpartitu nahi zuen: gizartearen hipokrisia salatu, klase-borroka sustatu, emakumearen liberazioa bultzatu, herri kolonizatuen askatasuna eskatu eta zahartzaroaren tabua pitzatu nahi izan zituen bere lan oparoaren bidez.

Sorbonako ikaskideek horrela ikusten zuten: “Ahots zakar eta etorri handikoa, buru argia, iritzi zorrotzekoa eta adimen garratzekoa”. Sartrek *Castor* ezizena ipini zion, “kastoreek konpainia maite dutelako eta ikaragarri langileak direlako”. Mariasun Landarentzat aitzindari eta erreferente ukazina izan zen, *Beauvoir belaunaldiari* buruz hitz egiteraino heltzen da biografiari egin dion hitzaurrean, (eragin handia izan zuen *Zortzi unibertsu* liburuiko idazleengan, adibidez, gaztetan Arantxa Urretabizkaia *Simona* deitzen zion Ramon Saizarbitoria).

Bere bizitzari buruzkoak hobeto ezagutzeko zabal ezazu emakume aske honi buruzko biografia hau eta ea beste liburu batzuetara zaramatzen, niri gertatu zaidan moduan.

40 urteren testigantza liburu bakarrean

Josemari Velez de Mendizabalek Euskal Herriaren azken 40 urteetako bilakabidea bildu nahi izan du *Badok 13* liburuan. Horretarako, alor ugarietako pertsonak elkarriketatu ditu, besteak beste, Carlos Garaikoetxea, Mirentxu Purroy, Jose Maria Setien, Maria-sun Landa, Benito Lertxundi eta Begoña Amunarriz. Irakurleak tituluari begiratu igarriko zuenez, hamahiru dira guztira elkarriketatuak, eta iritziak berriz, askoz gehiago. Liburuarekin batera bideoan ere bildu dituzte elkarriketak, bi DVDtan, Ekain Velez de Mendizabalek grabatuta. ■



Badok 13.
Josemari Velez de Mendizabal.
Eusko Ikaskuntza.
279 orrialde.
10 euro.

Paul Daviesen gogoetak zientziaz eta jainkoaz

Xabier Monasteriok itzuli du euskarara Paul Daviesen *Jainkoaren gogamena*. XX. mendeko idazle zientifikorik garrantzitsuenen artean dago Davies, eta Gaiak argitaletxeak aurkeztu duen liburu honetan honakoa aztertu du: ikerketa zientifikoaren eta errealitatearen artean dagoen harremana. Daviesek, erlazio horren inguruan jarduteko, zientziaren oinarriek logikatik at dituzten eremu estetiko, etiko, oniriko eta kosmologikoak ditu hizpide. Gainera, metodologia zientifikoaz hainbat azalpen eskaini ditu, erlijioen metodoekin konparatuz. Bide horretatik hainbat galdera plazaratu dizkigu egileak, unibertsoaren diseinuaz, jainkoaz eta naturaren legeez, besteak beste. ■



Jainkoaren gogamena.
Paul Davies.
Gaiak.
312 orrialde.
21 euro.